# BESTELAKO XEDAPENAK

## KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 109

*EBAZPENA, 2019ko abenduaren 2koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez ematen baitira euskal kultura-ondarearen babesaren arloari aplikatutako ikerketa-lanak 2019an eta 2020an egiteko dirulaguntzak.*

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2019ko irailaren 11ko Aginduaren bidez (irailaren 18ko EHAA, 180. zk.), euskal kultura-ondarearen babesaren arloari aplikatutako ikerketa-lanak 2019an eta 2020an egiteko dirulaguntzetarako deialdia arautu zen.

Aginduaren 15. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, Balorazio Batzordea 2019ko azaroaren 28an bildu ondoren eta eskabideak aztertu eta gero, dirulaguntzak esleitzeko ebazpen-proposamena eman zuen 2019ko azaroaren 28an, eta horrekin batera, Aginduaren 15. artikuluaren araberako balorazio-irizpideak aditzera eman zituen.

Hori dela eta, Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita eta Aginduaren 17. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren eskatzaileei bertan agertzen diren dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.– Dirulaguntza ukatzea II. eranskinean agertzen diren pertsonei, bertan azaltzen diren arrazoiak direla eta.

Hirugarrena.– Onuradunak dirulaguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzen mendean geratzen dira, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerako baldintza orokorren mendean ere.

Laugarrena.– Dirulaguntzaren xede diren proiektuek 2019ko ekitaldian hasita egon edo hasi behar dute eta 2020ko urriaren 7a baino lehen amaitu. Gauzatzeko epea ezingo da atzeratu edo luzatu data horietatik aurrera.

Bosgarrena.– Dirulaguntzaren xede diren proiektuek 2019ko ekitaldian hasita egon edo hasi behar dute eta 2020ko urriaren 7a baino lehen amaitu. Gauzatzeko epea ezingo da atzeratu edo luzatu data horietatik aurrera.

Seigarrena.– Emandako dirulaguntzen ordainketa honela egingo da, aginduaren 20. artikuluan xedatutakoari jarraituz:

a) Lehenengo zatian, emandako dirulaguntzaren % 50 ordainduko da esleitzen den unean, betiere berariaz uko egiten ez bazaio.

b) Gainerako % 50a, gastua justifikatu ondoren, dirulaguntzaren indarraldia amaitzean eta aurretik eskatutako dokumentazioa aurkeztuta egingo da.

Seigarrena.– Diruz lagundutako jarduerak gauzatu direla justifikatzeko eta likidazioa egiteko, aginduaren 21. eta 22. artikuluetan ezarritakoa beteko da. Edozein kasutan, 2020ko urriaren 27a izango da dirulaguntza jaso duten proiektuen egiaztagiriak aurkezteko epearen azkeneko eguna.

Zazpigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Zortzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.2 artikuluak ezartzen duenarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, interesdunek ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera edo, hala badagokio, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 2a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

# I. ERANSKINA

## EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

| Eskatzailea | Esp. Kod. | Proiektuaren izenburua | Dirulaguntzaren diru-kopurua | 1. Ordainketa (2019) | 2. Ordainketa (2020) |
|---|---|---|---|---|---|
| Alberdi Lonbide, Xabier | 015-KOI-2019 | Proyecto de investigación sobre la caracterización histórica y tecnológica de las arraguas o instalaciones de calcinación de mineral de hierro del País Vasco. | 13.500,00 | 6750,00 | 6.750,00 |
| Cilla Lopez, Raquel | 007-KOI-2019 | Investigación y puesta en valor de la plateria antigua en Bizkaia. | 12.000,00 | 6.000,00 | 6.000,00 |
| Escribano Ruiz, Sergio | 003-KOI-201 | Campos de batalla de la Guerra Carlista. Propuesta de identificación, caracterización y estudio. | 12.500,00 | 6.250,00 | 6.250,00 |
| Etxezarraga Ortuondo, Iosu | 011-KOI-2019 | Cerámica de cubrición en el País Vasco. Caracterización tecnológica y ámbito de distribución geográfica. | 13.500,00 | 6.750,00 | 6.750,00 |
| García Gómez, Ismael | 021-KOI-2019 | San Vicente de Vitoria. Arqueología de la Arquitectura en un castillo capital para la historia de Euskadi. | 13.500,00 | 6.750,00 | 6.750,00 |
| Larrinaga Cuadra, Itziar | 023-KOI-2019 | Patrimonio organístico de la CAPV. Organos anteriores a 1800. | 13.400,00 | 6.700,00 | 6.700,00 |
| Martinez Martinez, Josu | 005-KOI-2019 | Frantziako artxibetan den ikus-entzunezko euskal ondarearen berreskurapena. | 13.285,00 | 6.642,50 | 6.642,50 |
| Narbarte Hernandez, Josu | 009-KOI-2019 | Proyecto para la investigación y la valorización patrimonial de los paisajes culturales marismeños de la costa vasca. | 13.500,00 | 6.750,00 | 6.750,00 |
| Sanchez Zufiaurre, Leandro | 014-KOI-2019 | Proyecto de investigación aplicada a la protección del patrimonio bodeguero preindustrial de Rioja Alavesa, 2020. Bodegas de Laguardia. | 12.555,00 | 6.277,50 | 6.277,50 |
| Santamarina Otaola, Josu | 001-KOI-2019 | Guda-otsak. Estudio arqueológico-patrimonial del frente exterior de la guerra civil en el País Vasco (2019-2020). | 13.500,00 | 6.750,00 | 6.750,00 |
| Solaun Bustinza, José Luis | 008-KOI-2019 | Arqueología de la muerte. Los primeros cementerios intra ecclesiam y su reflejo cultural vasco. | 13.500,00 | 6.750,00 | 6.750,00 |
| Villaluenga Martínez, Aritza | 024-KOI-2019 | Estudio y protección de cavidades con evidencias arqueológicas y paleontológicas alrededor de la Llanada alavesa. | 13.500,00 | 6.750,00 | 6.750,00 |
| | | Guztira | 158.240,00 | 79.120,00 | 79.120,00 |

II. ERANSKINA

UKATUTAKO DIRULAGUNTZA-ESKAERAK

| Eskatzailea | Proiektua | Arrazoia |
|---|---|---|
| Dominguez Beltran de Heredia, Idoia Carlota | Conocer para proteger. análisis del patrimonio arquitectónico defensivo en Rioja Alavesa. | (1) |
| Porcel Ziarsolo, Alazne | Conservación del patrimonio artístico de la Universidad Del País Vasco. Estudio y catalogación de la colección de arte Contemporáneo de la UPV/EHU. | (1) |
| Iraola Garmendia, Nerea | Urbanismo rural en el país vasco. Creación de espacios de poder y sociabilidad en barrios, anteiglesias y villas de fundación tardía. | (2) |
| Asociación de historiadores de Bortziriak-Cinco Villas | La Arquitectura Racionalista en Euskadi. Edificios, arquitectos, constructores, promotores (1917-1940). | (2) |
| Campos López, Teresa | (Re)lectura feminista del patrimonio arqueológico en el País Vasco: investigación y diagnóstico. La perspectiva de género para la protección del patrimonio. | (2) |
| Fernández Carvajal, José Ángel | Estudio Arqueológico de otras formas de poblamiento de la Edad de Hierro en la Vertiente Cantábrica del País Vasco: análisis y valoración de los asentamientos fuera de los recintos fortificados. | (2) |
| Martínez Montecelo, Ángel | Hacia un SIG de intervenciones arqueológicas: aplicación práctica en Álava. | (2) |
| Obregon Sierra, Angel | Traineras e identidad costera: de la pesca al deporte. | (2) |
| Barruso Bares, Pedro | Sistema de Información Histórica de la documentación diplomática francesa en relación a la Guerra Civil. | (2) |
| Fundación V Centenario de la batalla de San Marcial-San Martzial Guduaren V. Mendeurrena Fundazioa | Fases de construcción del castillo de Gazteluzar a través del tiempo y de su documentación. | (2) |
| Filloy Nieva, Idoia | Catalogación y puesta en valor de las estructuras del edificio histórico de Santa Catalina de Badaya (Trespuentes, Álava). | (2) |

- Puntuazioak markatutako ordenean aurretik dauden proiektuei dirulaguntzak banatu ondoren, proiektu honetarako gainerako diru-kopurua diruz lagundu daitekeen guztizko aurrekontuaren % 25 baino handiagoko gutxitzea ekarriko litzaioke. (15.4 artikulua).

- Dirulaguntza jaso ahal izateko agindu arautzailean ezarritakoa baino puntuazio txikiagoa izan du.